

ELKARBIZITZA IKASGAI

Kulturaren arteko harreketarako proposamena

Pertsonengan
konfiantza izan
eta konfiantza
lortzea



Sekretu bat
ahots goran

UNITATE DIDAKTIKOA



Pertsonengan konfiantza izan eta konfiantza lortzea



PASARTEA TESTUINGURURATZEN

- Argumentuaren laburpena _____ 4
- Sentsibilizaziorako lema nagusia _____ 4
- Unitate didaktikoaren ikuspegia _____ 4
- Helburuak _____ 5
- Hezkuntza eremu desberdinetarako orientabideak _____ 6

ARIKETAK

A

Sarrerarako eta sentsibilizaziorako ariketak

1. Zer da fidakorra izatea eta mesfidatia izatea _10
2. Oreka _____10

B

Pasartea aztertzeko ariketak

3. Iritzi orokorrak ___11
4. Pertsonaiak _____11
5. Harremanak eta erantzunak _____11
6. Amaiera _____12
7. Zein egoeratan fidatzen naizen eta zeintzuetan fidatzen diren nirekin _____13
8. Konfiantza eta mesfidantza _____13
9. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna _____13
10. Istorioa berridatzi _____14

C

Gogoeta egiteko eta sakontzeko ariketak

11. Konfiantza esperimentatzea _14
12. Adiskidetasuna _____15
13. Zein jarrera daukagun inguruko errealitatearen aurrean _____15
14. Gure sentimenduak ezagutu _____16
15. Beldurrari aurpegia eman _____17
16. Barkamena eskatu _____18

Aurkibidea



O

Hiztegi ariketak

17. Gauzen izenak ____ 19

E

Laburpen ariketak

18. Adiskidetasuna
konfiantzan
oinarritzen da ____ 20

F

Azken ariketak eta
konpromisoa
hartzeko ariketak

19. Konfiantzaren
jaia ____ 20

Pasartea testuingururatzzen



Argumentuaren laburpena

Elenaren aita
pozik dago.
Lagun batek

itsaso ondoan txabola bat utziko
ziola esan zion, familia osoarekin
oporretan joateko. Poztasuna
norbaitekin konpartitzeko beharra
sentitzen du eta Elenari kontatzen
dio, baina inori ez esateko
baldintzarekin. Hala ere, Elenak
Nereari esaten dio, Nereak Daniri,
Danik Josuri eta Josuk Mikeli.

Azkenean, bidaia egiten duen

bakarra zurrumurrua, txutxu-mutxua, baino ez da. Besteak,
planak eginda eta maleta prestatuta, inora joan barik
geratzen dira.

Sentsibilizaziorako lema nagusia

“Pertsonekin fidatzea eta haien
konfiantza irabaztea.”

Unitate didaktikoaren ikuspegia

Pertsonen arteko elkarbizitza
positiboa izan dadin konfiantza
behar-beharrezkoa da.

Konfiantzak elkarriketaren, onarpenaren eta komunikazioaren
ateak zabaltzen ditu. Mesfidantzak, ordea, adiskidetasuna
hondatzen du, lagunaren arteko
harremanak zailtzen ditu, lankidetzaz
zintzoa eragozten du eta pertsonak
isolatzen ditu.

Lagun eta lankideekin fidatzen diren
pertsonak arazoei aurre egiteko
aukera gehiago dituzte, elkarriketaz
zintzoan eta elkarri laguntzean oinarrituta.

Hala ere, norberaren konfiantzak beharrezkoa du konfiantza horri
leialtasunez erantzuteko gaitasuna.

**Konfiantzak
elkarriketaren,
onarpenaren eta
komunikazioaren
ateak zabaltzen ditu.**



Konfiantzak elkarriketaren, onarpenaren eta komunikazioaren ateak zabaltzen ditu.

Lagunekin fidatuz gero, gure eskolara datozen ikaskide berriei gure konfiantza eskainiz gero, pertsonak gustura sentitzen dira, taldearen eskakizunetara egokitzen dira eta haiek ere beren konfiantza eskainiz erantzuten dute.

Ez da gauza bera konfiantza izatea eta edozeinekin “fidakorregia” edo arduragabea izatea.

Mesfidatia izanda zalantza eragiten da, eta berdinen arteko harreman zintzoak eragozten dira.

Helburuak **Helburu nagusia**

Pertsonen arteko harremanak eta talde harremanak konfiantzan oinarritzea, beste pertsonen gaitasunak baloratzuz, elkarren arteko komunikazioa eta laguntza garatuz eta bizikidetzan izan daitezkeen gatazkei elkarriketa konstruktiboaren bidez aurre eginez.

Mesfidatia izanda zalantza eragiten da eta berdinen arteko harreman zintzoak eragozten dira.

Mesfidatia izanda zalantza eragiten da, eta berdinen arteko harreman zintzoak eragozten dira.

Hezkuntza helburuak eta helburu didaktikoak

1. Norberaren burua eta beste pertsonak errespetatzeko jarrera garatzea, besteak ulertzeko eta besteei ulerrarazteko.
2. Eskubide indibidualak errespetatzea eta betebeharrak erantzukizunez betetzea.
3. Sexuaren, kulturaren, egoera ekonomikoaren, erlijioaren, minusbaliotasunaren... ondorioz izan daitezkeen diskriminazio moduak ezagutzea eta baztertzea.
4. Beste pertsona edo herrien arazoen aurrean elkartasuna azaltzea.
5. Benetako gatazkak edo simulatutako gatazkak elkarriketa eta negoziazioaren bidez gainditzea.





6. Elkarriketari balioa ematea lagunen arteko arazoak gainditzeko.
7. Beste ikaskideak modu positiboan ikustea, haien balore eta aukerak deskubritzen ahaleginduz, horrela, umeeak osatutako elkarteak aintzat har daitezten.

Hezkuntza eremu desberdinetarako orientabideak

Familia: Sarritan mesprezuzko komentarioak egiten ditugu beste pertsona eta gizatalde batzuei buruz, eta, horrela, gazteenak pertsona eta

gizatalde horiekin mesfidati izatea eragiten dugu. Sarritan entzuten dira honelakoak: “Kontuz urliarekin” “Ez hurbildu urliarengana” Ez hitz egin berendiarekin” “Ez atera urliarekin”. Era berean, gure etxeetan honelakoak esaten ditugu: “Jende mota hori ez da parte onekoa”, “Horiek lapur eta alfer hutsak dira”, “Zerbaitengatik etorriko ziren hona”.

Mezu horiek, azalpenik eman gabe edo azalpenak emanda, beste pertsona horiekiko mesfidantza ereiten dute. Eta zalantza ereiteak hondatu egiten ditu adiskidetasun eta onarpen aukerak, eta, era berean, mesfidantza pizten du.

Sarritan mesprezuzko komentarioak egiten ditugu beste pertsona eta gizatalde batzuei buruz

Gure ohiko hizkeratik erabat kendu beharko ditugu inmi-granteekin, gaixoekin, minusbaliotasun edo beharrianen bat duten pertsonekin... lotutako mesprezu adierazpideak; hitz onak esan beharko genituzke haiei buruz, haien balore positiboak adieraziz, haien herria, etnia, egoera eta kultura aintzat hartuz.

“Txarto esan sarri eta gehienetan igarri” esaeraren orde-z “ondo esan eta lagun bat aurkituko duzu” esan beharko genuke.

Sarritan, mesprezu komentarioak egiten ditugu pertsona eta gizataldeei buruz.

Escola: Gure gogoetaren erdigunea konfiantza da, konfiantza hori izan dadin beharrezkoak diren baldintzak ezarri behar dira,



gurekin bizi diren eta, itxura batean, besteengandik bereizten dituzten ezaugarriak dauzkaten pertsonen buruzko aurreiritziak gaituzten behar ditugu. Beste herrialde, kultura edo erlijio bateko ikaskide berri bat etor daiteke, edo minusbalotasun bat izan lezake ikaskide berriak, eta gu ez gara seguru sentitzen.

Konfiantza balorea da, harremanak izateko estilo bat eta harremanak aberasteko modu bat. Era berean, “besteek konfiantza izateko”, norberarengan jarritako itxaropenei hutsik ez egiteko jarrera izan behar da.

Heziketa eremu horretan sentimenduak, emozioak, esperientziak... konpartitzen dira

Konfiantzaren bidez, halaber, harremana hartzeko gero, eskura izaten dira mekanismoak harreman hori berriz bideratzeko.

Heziketa eremu horretan sentimenduak, emozioak, esperientziak... konpartitzen dira.

Aisialdia: Aisialdiko harremanak konfiantzan oinarritzen dira. Gauzak elkarrekin egitea helburu komunak lortzeko: horixe da jarduera kooperatiboaren, talde-lanaren, sekretua. Hori dela eta, konfiantza oinarritzakoa da aisialdiko talde jardueretan.

Heziketa eremu horretan sentimenduak, emozioak, esperientziak... konpartitzen dira, eta konfiantzak ireki edo ixten ditu topaketarako, komunikaziorako, aukerak. Ume etorkinei aisialdiaren atea irekiz, gure bizitzak konfiantza esperientzia batera irekitzen ditugu.

ESKOLA. Curriculum eremua

Tutoretza

1. Zer da fidakorra izatea eta mesfidatia izatea _10
3. Iritzi orokorrak _11
4. Pertsonaiak _11
5. Harremanak eta erantzunak _11
6. Amaiera _12
7. Zein egoeratan fidatzen naizen eta zeintzuetan fidatzen diren nirekin _13
8. Konfiantza eta mesfidantza _13
9. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna _13
11. Konfiantza esperimendatzea _14
12. Adiskidetasuna _15
15. Beldurrari aurpegia eman _17
16. Barkamena eskatu _18

Hizkuntza

2. Oreka _10
3. Iritzi orokorrak _11
4. Pertsonaiak _11
10. Istorioa berridatzi _14
13. Zein jarrera daukagun inguruko errealitatearen aurrean _15
14. Gure sentimenduak ezagutu _16
17. Gauzen izenak _19
18. Adiskidetasuna konfiantzan oinarritzen da _20
19. Konfiantzaren jaia _20

Ingurunearen ezagutza

13. Zein jarrera daukagun inguruko errealitatearen aurrean _15
18. Adiskidetasuna konfiantzan oinarritzen da _20
19. Konfiantzaren jaia _20

ASIALDI HEZIGARRIA. Tipologia

Soziodramatikoak

14. Gure sentimenduak ezagutu _16
15. Beldurrari aurpegia eman _17
16. Barkamena eskatu _18

Kreatiboak

1. Zer da fidakorra izatea eta mesfidatia izatea _10
10. Istorioa berridatzi _14
17. Gauzen izenak _19
18. Adiskidetasuna konfiantzan oinarritzen da _20
19. Konfiantzaren jaia _20

Kooperatiboak

2. Oreka _10
3. Iritzi orokorrak _11
4. Pertsonaiak _11
6. Amaiera _12

Ariketak



Harremanak bultzatzekoak

2. Oreka _____ 10
3. Iritzi orokorrak _____ 11
5. Harremanak eta erantzunak _____ 11
7. Zein egoeratan fidatzen naizen eta zeintzuetan fidatzen diren nirekin 13
8. Konfiantza eta mesfidantza _____ 13
9. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna _____ 13
11. Konfiantza esperimentatzea _____ 14
12. Adiskidetasuna _____ 15
15. Beldurrari aurpegia eman _____ 17
16. Barkamena eskatu _____ 18

Jai eta jardunaldiak

18. Adiskidetasuna konfiantzan oinarritzen da _____ 20
19. Konfiantzaren jaia _____ 20



A

Sarrerarako eta sentsibilizaziorako ariketak

1. ariketa ~ "Zer da fidakorra izatea eta mesfidatia izatea"

Gure lagun eta lankideekin fidatzen garen: gai horretara bideratu behar dugu umeen arreta, hau da, zer den fidakorra izatea eta zer den mesfidatia izatea, lagunaren arteko konfiantzak zein ezaugarri izan behar dituen.

"Itsumutilaren jolasa" egin dezakegu hasteko: begiak estalita ditugula lagun batek gidatu behar gaitu, harekin fidatu behar dugu. Dena dela, gero gogoeta egin beharko da pasartea prestatzeko.

2. ariketa ~ "Oreka"

Definizioa: bikoteka oreka lortzen saiatuko gara, eta mugimenduak egingo ditugu elkarri lagunduz.

Hasierako kontsignak: bikotekak fisikoki oso desberdinak diren pertsonen artean egitera gonbidatuko ditugu: baxuak altuekin, lodiak argalekin, argi gera dadin beti lor daitekeela oreka.

Garapena: parte-hartzaileak bikoteka batuko dira. Bikotekideak aurrez aurre jarriko dira, eskuetatik helduta, hankak batuta eta bata bestearen oin-puntak ukituz. Posizio horretan, hankak lurretik altxatu barik, bikotekide bakoitzak utzi egingo dio gorputzari atzerantz jausten, gorputza artez-arteaz duelarik. Horrela egingo dute harik eta besoak erabat luzatu arte eta bikotearen barruan oreka puntua aurkitu arte. Oreka lortu ondoren, mugimenduak egiten saia daitezke besoak tolestu gabe: bikotekideetarikoa batek hankak okertuko ditu besteak eusten dion bitartean, biak makurtu...

Ebaluazioa: Nola sentitzen gara? Erraza izan da oreka lortzea? Zer gertatu da oso desberdinak diren pertsonekin osatutako bikoteetan?





B

Pasarteak aztertzeko ariketak

3. ariketa ~ "Iritzi orokorrak"

Lehen iritziak: Lehen iritziak, normalean, besteek esandako sekretuak, ezkutuko informazioa, inori ez esateko konpromisoarekin daude lotuta.

Iritzi orokorra: Gain-gainetik, pertsonen konfiantzari dagokionez ze jokabide duten aztertzen saiatuko gara.

Argumentuaren laburpena: Orain argumentua laburtzen ahaleginduko gara. Atal hau garrantzitsua da taldeak ikusitakoaren ikuspegi bateratua azal dezan.

4. ariketa ~ "Pertsonaiak"

Parte hartzen duten pertsonaiak karakterizatuko ditugu. Horretarako, lehenengo, pertsonaiak identifikatuko dira, ezaugarri fisikoak deskribatu, izaeraren ezaugarriak deskribatu eta alderdirik azpimarragarrienak nabarmendu.

Pertsonaia	Nolakoa da?	Ze jokabide dauka?	Zergatik du jokabide hori?	Zer deritzozu jokabide horri?	Bururatzen al zaizu beste jokabideren bat?
Elena					
Aita eta ama					
Nerea					
Dani					
Joñu					
Mikel					

5. ariketa ~ "Harremanak eta erantzunak"

Elkarriketa da ariketaren oinarria. Gogoeta egingo da ahozko adierazpidea erabiliz, hitz eginez; izan ere, gure umeen artean hutsune handia sumatzen dugu arlo horretan. Taldeka, pasarteak iradoki diena aztertzea da helburua.



Lan fitxa erara osatzeko material gisa ere erabil daiteke, baina, ahal dela, hobe da pentsamendu kolektiboa eratzen laguntzen duen ahozko adierazpidea erabiltzea.

- Ze sekretu diotso aitak Elenari inori ez kontatzeko baldintzarekin?
- Zer egiten du Elenak?
- Nola gordetzen du sekretua Nereak?
- Zer ez dio inori kontatu behar Danik?
- Zer egiten du Danik, Mikel eta Josu lagunak topatzen dituenean?
- Nola erreakzionatzen dute sekretua ezagutzean?

Nor	Honela erreakzionatzen dute
Elena	
Nerea	
Dani	
Josu	
Mikel	

- Denek dakiten zer ez daki Elenak?
- Ze jokabide dute Elenak ez dienean deitzen?
- Nola zapuzten dira planak?
- Nola erreakzionatzen du Elenak lagunak zer dakiten eta nola jakin duten konturatzean?
- Nola bukatzen da istorioa?

6. ariketa ~ "Amaiera"

Pasartearen amaieran pertsonaiek dituzten erreakzioen gainean gogoeta egingo dugu.

Pertsonaia	Nola erreakzionatzen du?	Zergatik?	Zer esango zenioke?
Elena			
Aita eta ama			
Nerea			
Dani			
Josu			
Mikel			





7. ariketa ~ "Zein egoeratan fidatzen naizen eta zeintzuekin nirekin fidatzen diren"

Gure konfiantza eta mesfidantza esperientziak aztertuko ditugu. Horrek besteei sentitzen dutena ulertzen lagunduko digu.

Fidatu egiten naiz	Zer sentitzen dut?	Fidatu egiten dira	Zer sentitzen dut?

8. ariketa ~ "Konfianza eta mesfidantza"

Gure inguruan, esate baterako, eskolan edo auzunean, konfiantza transmititzen duten pertsona edo talde motak eta mesfidantza eragiten duten pertsona eta taldeak.

Ze pertsona onartzen dira?	Zergatik?	Zer egin?	Ze pertsona baztertzen dira?	Zergatik?	Zer egin?

9. ariketa ~ "Gehien eta gutxien gustatu zaiguna"

Umeek pasarteko zati bakoitzari buruz ze iritziz duten nabarmendu nahi dugu.

Gehien gustatu zaidana	Gutxien gustatu zaidana

Koadroa bete ondoren (talde txikian edo, arbel edo horma-irudia erabiliz gero, talde handian egin daiteke), gure gaiarekin lotuta duten elementuak nabarmentzen ahaleginduko gara, hau da: zeintzuk diren "berdintasuna desberdintasunean" gaiarekin zerikusia duten elementuak.



10. ariketa ~ "Istoriaa berridatzi"

Honako hau laburpen ariketa bat izatea nahi dugu, taldearen gogoeta biltzen lagunduko duena.

Pasartearen mezua. Zer esan nahi digun.

Idatzi esaldi edo lema batean pasartearen mezua.

Konparatu lema edo esaldi hori lehen arbelean idatzi dugunarekin.

Bizi edo ezagutu izan ditugun konfiantza edo mesfidantza egoerei buruzko istorio edo pasarteak kontatu (komiki, ipuin edo antzezlan erara egin daiteke).

C Gogoeta egiteko eta sakontzeko ariketak

11. ariketa ~ "Konfiantza esperimentatzea"

Orain errepikatu egingo dugu gogoetaren hasieran, pelikula ikusi aurretik, egindako ariketa. Beste begi batzuekin, esperientziak emandako ikuspegiarekin egiten ahaleginduko gara. Konfiantza eta elkarren mendekotasun modu bat esperimentatu nahi dugu, geure baitan aukera berriak garatuz.

Parte-hartzaileak aurrez aurre jarriko dira, bata bestearen oin-puntak ukituz. Bakoitzak bikotekideari eskumuturretatik helduko dio. Horrela daudelarik, elkarrengandik urrunduz joango dira, oin-puntak mugitu barik, gorputza atzerantz botata.

Horrela, denek sentitzen dutenean elkarrekin ondo moldatzen direla edozein mugimendu egiteko, beste mugimendu batzuk egingo dira, esate baterako, bata makurtu eta bestea altxatu, zabu antzeko bat osatuz, edo bururatzen zaien beste edozein: kontua da beti elkarri helduta eta jausi barik egotea.

Jolasean ibili ondoren, elkarriketa bat izango da:

Nola sentitu gara beste pertsona baten mendean izanik?

Zer moduz konfiantza? Eta mesfidantza?





12. ariketa ~ "Adiskidetasuna"

Ariketa honetan, harreman sendo bat eratzeko, adiskidetasunak izan beharreko osagaiak zeintzuk diren zehaztuko ditugu.

Horretarako, bakoitzak lagun bati zein ezaugarri edo bertute eskatuko liokeen zehaztuko du.

Lagun bati hauxe eskatuko nioke:

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-

Bakoitzak lagun batek izan beharreko ezaugarriak zeintzuk diren adierazi ondoren, batetik "konfiantzarekin" zerikusia duten ezaugarri guztiak jarriko ditugu eta beste zerrenda batean gainontzeko guztia.

Konfiantzarekin	Beste ezaugarri batzuekin

13. ariketa ~ "Zein jarrera daukagun inguruko errealitatearen aurrean"

Kanporatu egiten ditugu besteak buruz ditugun iritzia. Horretarako, ume bakoitzak esaldiak osatuko ditu:

1. Egunean-egunean ... gehiago dago nire herrian.
2. Atzerritarak ... dira.
3. Neskek ezin dute ...
4. Mutilak ... dira
5. Marokoarrak ... dira
6. Ijitoek ... dute





7. Mutilek ezin dute ...
8. Nire auzunean atzerritarrak izatea ..., izan ere, ...
9. Nire ikasgelan, nire auzunean ijitoak izatea ...
10. Kartzelan egon diren pertsonak ...
11. Nagusiak...
12. Nire ustez, latinoamerikarrak ...
13. Aberatsak ...
14. Minusbaliotasunen bat duten pertsonak ...
15. Beltzak ...
16. Sekula ez nintzateke pertsona ... biziko, izan ere, ...

Orain besteei buruz ditugun iritziak kanporatzen ahaleginduko gara. Horretarako, ume bakoitza galdetegi hau betetzen saiatuko da:

- Benetan uste dugu horrelakoak direla?
- Ze iritzi dauka gure taldeak aipatu ditugun gizataldeei buruz?
- Zer pentsatzen duzue gure iritziari buruz?

14. ariketa ~ "Gure sentimenduak ezagutu"

Sarritan, mesfidantza sentimenduak gure baitan sustraitu dira, arrazoia oso ondo jakin barik. Entzundako komentarioek, komunikabideek, pertsona eta kultura batzuei buruzko estereotipo negatiboz betetako ipuinek... izan dute eraginik. Azken batean, esperientzia negatiboen bidez sustraitu dira, beste pertsona batzuen aurreiritzien bitartez.

Zenbait sentimendu antzeztu saiatuko gara. Guk banandutako txarteletan topatuko dituzte umeek antzeztu beharreko sentimenduak:

- Banoa kalera jolastera eta nire adineko neska-mutil batzuk topatzen ditut; ijitoak dira. Hurbildu egiten zaizkit eta nirekin futbolekin jolas dezaketzen galdetzen didate.





- Ume atzerritarra naiz eta eskolan ez dut eroso hitz egiten irakasleak galderaren bat egiten didanean.
- Neskato marokoarra naiz eta burua zapi batekin estalita daramat. Ikaskideak ez dira niregana hurbiltzen. Bat-batean, neska batzuek beraiekin jolasteko esaten didate. Zoriontsua naiz.
- Peruko neskato bat naiz. Pozez saltoka hasten naiz beste umeak niregana hurbildu, hitz egin eta beraiekin jolasteko esaten didatenean.

Gero aztertu egingo dugu:

Zer sentitzen duen protagonistak	Zer sentitzen duten aktoreek	Zer sentitzen duten ikusleek

15. ariketa ~ "Beldurrari aurpegia eman"

Orain konfiantza falta edo beldurra eragiten diguten egoeren aurrean ditugun jarrerak aztertuko ditugu. Honako egoerak antzeztuko ditugu:

- Kristal bat apurtu dut futbolean jolasten, eta beldur naiz auzokoaren leihoa apurtzeak ekar ditzakeen ondorioez. Nire kezka lagunei azaltzen diet.
- Beldur naiz etxean bakarrik egoteko eta lagun bati deitzen diot nirekin batera egon dadin.
- Beste kultura bateko neska edo mutil ezezagun bat topatzen dut eta niregana dator gauza bat galdetzera. Nik buelta eman eta korrika ihes egiten dut.
- Buruko ezintasun bat duen mutil edo neska bat hurbiltzen zait; ez du argi hitz egiten. Nik, entzun beharrean, buelta eman eta alde egiten dut.
- Mutil edo neska marokoar bat topatzen dut eta zerbait galdetu nahi dit.





Pausu hauekin aztertuko dugu:

Beldur naizen edo ez erabaki	Arrazoia zein izan daitekeen pentsatu	Benetan beldur izateko arrazoirik dagoen pentsatu	Beldurra gultxitzeko neurriak hartu

16. ariketa ~ "Barkamena eskatu"

Pertsonei kostatu egiten zaigu barkamena eskatzea behar ez den zerbait egin dugunean, esate baterako, baten bat mindu dugunean, gudan jarritako konfiantzari huts egin diogunean...

Antzezpena:

- Atzeritar jatorriko pertsona bati buruzko mesprezuzko komentarioa egin dut; besteek barre egiten dute nirekin batera eta pertsona horrek entzun egin du; oso triste jarri da.
- Ulertzen ez nauen ume afrikar batez abusatu dut; bihurrikeria bat egin nahi izan diot eta burla egin. Lagun hori haserretu egin da.
- Ume txikiago bat jo dut, iritsi berria izateagatik eta, itxura batean, ahulagoa izateagatik, beste barik.
- Barkamena eskatzen diot lagun bati, lagun horrek isilpean gordetzeko baldintzarekin esan didan zerbait beste batzuei kontatu diedalako.

Zer egin behar dut kasu bakoitzean?:

	Egindakoagatik barkamena eskatzea hobe izango litzatekeen erabaki	Barkamena eskatzeko modu desberdinei buruz pentsatu	Unea edo lekua erabaki	Barkamena eskatu
A				
B				
C				
D				



D

Hiztegi ariketak

17. ariketa ~ "Gauzen izenak"

Ikus dezagun hitzen esanahia:

- **Bus:** Autobusa.
- **Aitortzako isilpea:** Sekretu hautsiezina. Adierazpide hori kristau kulturatik dator; abadeek "aitortzako isilpea" gorde beharra dute eliztarrek bekatu eta hutsuneak aitortzen dizkietenean.
- **Sekreturik erregutuenak:** Sekretu bat ezagutzeko irrika bizia dagoenean edo asko eskatzen denean.
- **Kondominioa:** finka, konpartitutako jabegoa.

Ikus dezagun nola esaten den "autobusa" beste erregio edo herrialde batzuetan. Esate baterako, Kanarietan.

Zenbat sekretu mota ezagutzen ditugu?

Egin ditzagun esaldi batzuk "sekretu" hitzarekin.





Laburpen ariketak

18. ariketa ~ "Adiskidetasuna konfiantzan oinarritzen da"

Oraingo honetan KONFIANTZAN oinarritutako esaldiak batuko ditugu; kontuan izan behar da ikaskide eta lagunekin fidatzea dela helburua, kultura, jatorria, herrialdea, sexua edo minusbaliatua den ala ez kontuan izan barik.

Beste batzuetan Giza Eskubideen Deklarazioa edo Umeen Eskubideen Konbentzioa egiten den legez, oraingoan KONFIANTZAREN HERRIALDEA egitea ahalbidetuko digun deklarazioa egingo dugu.

Klub honetako edo Gela hartako umeak batu ondoren, erabaki hau hartu dugu:

Lagun bati haxe eskatuko nioke:

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-



Azken ariketak eta konpromisoa hartzeko ariketak

19. ariketa ~ "Konfiantzaren jaia"

KONFIANTZAREN HERRIALDEAREN Deklarazioa jasoko dugu, deklarazioaren oinarri diren printzipioak aldarrikatuko ditugu eta euretariko bakoitza antzeztuko dugu. Era berean, printzipioetarikoa bakoitza dantza edo kantu batekin lotuko da.

Aretoan, Deklarazioaren puntu bakoitzeko idazkun bat jarriko dugu.

Amaitzeko, biribilean jarrita, dantzatu egingo dugu Konfiantzari eta adiskidetasunari kantatuz. Askaria prestatuko dugu...

© EDEX, 2003

Egileak:

Rafael Mendieta eta Roberto Flores

Argitaratzailea:

EDEX

 Particular de Indautxu, 9. 48011 - Bilbao

 94 442 57 84  94 441 75 12

 edex@edex.es

 www.edex.es

ISBN:

84-9726-150-X

Obra osoaren ISBN: 84-9726-145-3

Lege gordailua: BI-2498-03

Mod.: 164646

© Edizio honen eskubide guztiak EDEXenak dira, eta bere idatzizko baimena aldez aurretik izan gabe, ez dago lana oso-osorik edo zatika kopiatzerik.

"Gizalegezko kultura partekaturantz doan
eta gizakiaren eskubideetan oinarrituta
dagoen hezkuntzak soilik saihestuko du
desberdintasunek diferentziak sortzea, eta
berezitasunek etsaitasuna ekartzea."

Rodolfo Stavenhagen.
"Hezkuntzak altxorra dauka barruan".
DELORS TXOSTENA. UNESCO

Ekimenaren arduraduna:



Particular de Indautxu, 9
48011 Bilbao
www.edex.es • edex@edex.es

Kolaboratzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA
Inmigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Inmigración

